

## **TELELANAREN GARAIAN, LANGILEN ESKUBIDEEN ALDE BORROKAN JARRAITZEN DUGU.**

Aurtengo M1ean ere kaleetara atera gara langileak gure aldarrikapenak ozen oihukatzeraz. Aurten inoiz baino gehiago, beharrezkoa delako egoera larrian dauden gure lan eskubideen alde borrokatzea. Badakigu une bereziak bizi dituela gure gizarteak. Azken urte hau oso gogorra izaten ari da alde guztietatik. Aurretik bizi genuen gizarte krisia, pandemia batek oraindik ere gehiago larriagotu du.

Egoera honek argi utzi du zeintzuk diren ezinbesteko lanak, bizitza sostengatzen dutenak, gehienek emakume aurpegia daukate eta egoera prekarioenetan lan egiten dute; menpeko pertsonen zaintzaz arduratzen direnak, supermerkatuko langileak, garbitzaileak, irakasleak, erizainak, etxean soldata gabeko eta ezikusia den lana egiten dutenak... denek gogor egin dute lan gizarte oso bat sostengatzeko baina ez dute beraien lanaren ordainik jaso. Lehengo egoerara iristeko desira horretan eskerrak justu justu eman eta ahaztu egin dira batzuk, langile horiek esfortzu ikaragarria egin dutela eta beraien gorputzak jarri dituztela egoerari aurre egiteko.

Honetaz gain enpresa handiak eta Jaurlearitzak langileak estutzen jarraitu du, guztiei esfortzu ikaragarria eskatzen aurrera egiteko, betikoen poltsikoak betetzen jarraitu duten bitartean. Gobernuak langileei lagundu ez eta hauek kalera ateratzen direnean berain eskubideen alde borrokatzeraz jipoitu egiten ditu. Hau izango al da gobernuaren konponbidea egun langileek bizi duten egoerari aurre egiteko, langileen eskubideak murriztu eta errepresioaren bidez isilarazi? Horrela bada jakin dezan aurrean izango gaituela.

Kapitalismoa berriro ere larrialdi egoera honetaz elikatu da, pobreen eta aberatsen arteko arrakala areagotuz. Eta ezin dugu ahaztu arrakala honek gutxien dutenengan izan duen eraginaz, bizitzeko eskubidea ere ukatzen zaien horien kasuan, ilegaltzat hartzen direnen bizitzak, horien biziraupena egoera larrian dago eta.

Egitura kapitalista honen logika nekropolitikoak aurrera ateratzeko isilik behar gaituzte. Eta horretarako, orain inoiz baino hobeto onartu dugun gizartearen kontrola daukagu, honek pandemiaren izenean neurri zorrotzak betetzera behartzen gaituzte, askotan koherentzia falta izugarriarekin eta gure banakako eskubide urratuz. Guzti honek, gizarte kohesioaren kontra egiten du eta mugimendu sozialak lanean jarraitu dezagun zailtzen du. Biolentzia matxista hazi egin da, emakume asko beraien erasotzaileekin giltzapetuta bizi dira, orain inoiz baino gehiago. Eta bitartean gizarte gero eta sumisoago bilakatzen ari da.

Salbuespeneko egoera honen argudioaz autoesplotazioa gailendu da, telelana, amaigabeko jardunaldiak, 24 orduz konektatua egon behar izatea... emakume asko ama, irakasle, langile, psikologo eta hezitzaile izan dira aldi berean. Panorama honen aurrean COVIDaren krisaldiaz gain osasun mentalaren

krisialdiari aurre egin beharko diogu, baita bizitzaren prekarizaioarena. Noiz pentsatzen du Eusko Jaurlaritzak eta hau osatzen duten alderdi politikoak arazo honi eustea? Depresioak, langabezia, pobrezia... dagoeneko hemen daude, non daude honi aurre egiteko neurriak? Edo hau ere pobrezia eta jipoiak konponduko dute?

Badakigu zoru desegonkor baten gainean ari garela aurrera egiten, langileen eta bizitzaren alde borrokan. Pandemiaren izenean denok gure lan eta bizi baldintzak nola kaskartzen diren ikusi dugu eta zilegitasuna kendu nahi izan diete gure aldarrikapenei, oinarrizko bizi beharrei eta askatasunari. Baina ez dugu amore emango, orain inoiz baino gogorrago borrokatu behar dugu gure lan baldintzen alde eta bizitzaren sostengu diren zerbitzu publikoen defentsan, hauek ez baitira txaloen bitartez indartzen, diru inbertsio eta lan baldintza duinekin baizik. Gobernuak ordea zerbitzu publikoak progresiboki desmantelaten jarraitzen du.

Ba jakin dezaten ez diegula utziko, beraien erantzuna jipoiak eta errepresioa bada ere gu borrokan jarraituko dugula guztion bizi eta lan baldintza duhinen alde, zerbitzu publikoen defentsan eta errepresioaren kontra. Gora langileen borroka!!!!

ESK-STEILAS-GOT